

## 1.1.2 GAIAREN LANKETA

### > Nor, nolakoa, zer zara zu?



#### - Nor zara zu?

- Ni naiz, baina zu zara: begiratu eta entzun

#### Helburuak

- Umeek izan aditza ikastea.
- “Nor zara zu?” galderari erantzutea.

#### Prozedura

- Umeei fitxa bana banatu eta arretaz begiratzeko eskatu.
- Arbelean, izan aditza idatzi eta azaldu zer den, zein esanahi duen eta zertarako erabiliko den:
  - **Zer da?** aditza da.
  - **Zer esan nahi du?** Yo soy, tu eres, el/ella es...
  - **Zertarako erabiliko dugu?** Momentuz, gure izen-abizenak zeintzuk diren esateko.
- Hezitzaileak, mimika eginez, adibideak eman: **ni**\_\_\_ **naiz**, norberaren burua seinalatuz eta izen-abizenak esanaz; **zu** \_\_\_ **zara**, hezitzaileak ondoan daukan umea seinalatuz eta bere izen-abizenak esanaz; **hura**\_\_\_ **da**, hezitzailearengandik urruti dagoen umeren bat seinalatuz eta bere izen-abizenak esanaz; **gu**\_\_\_ **gara**, gelan dauden denak seinalatuz eta denen izen-abizenak esanaz; **zuek**\_\_\_ **zarete**, hezitzailearengatik hurbil dauden bi ume seinalatuz eta beraien izen-abizenak esanaz; **haiek**\_\_\_ **dira**, hezitzailearengandik urruti dauden bi ume seinalatuz eta beraien izen-abizenak esanaz.



#### Oharra

- Garrantzitsuena umeek izan aditza ulertzea da. Euskaraz azaltzen saiatu, baina ez badute ulertzen lagundu.